

Pikardia Zutik: Ruffinek aberatsei ostikada eman nahi die legebiltzarretik



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

François Ruffin kazetariak Frantziako oligarkia birritan astindu ostean, lehenik *Merçi patron!* dokumental zirraragarriarekin eta gero *Nuit Debout* mugimenduaren sorrera bultzatuz, politikarako jauzia egin du: Parisko legebiltzarrerako aurkeztan da diputatugai, Amiens inguruko hautesbarrutian PSTik haragoko ezkerren eta ekologisten babesla lortuta. Podemos frantses baten ernamuina?



François Ruffin Calais hirian –Frantzia iparraldean– jaio zen 1975ean. 1999an, *Fakir* aldizkaria sortu zuen, “ia kristo guztiarekin haserretua”. Idatziengatik zazpi aldiz eraman dute enpresa handiek auzitara, seitan berak irabaziz. *France Inter* irradian eta *Le Monde Diplomatique* ere eginak ditu kolaborazioak. 5 eta 8 urteko bi haurren aita da. Futbolzalea ere bai eta “Nola ebatsi ziguten futbola?” liburua idatzia du.

2016an *Merçi patron!* dokumentala egin zuen, ARGIAko orriotan aurkeztu genuena: Jocelyne eta Serge Klur senar-emazte langabetuek beren ezin biiziaren erruduna den Bernard Arnault oligarkari xantaia egingo diote, Ruffinen eta beste zenbait langile militanteren laguntzaz. Filmak erakusten du Louis Vuitton, Moët-Chandon, Kenzo eta beste hainbat luxuzko konpainiaren jabe den Arnaulten aberastasunen jatorri iluna eta obreroekin darabilen jokabide errukigabea.

Espanian –Hego Euskal Herria barne– gutxi aipatua izan den arren, Frantzia 500.000 jende ikusi dute aretoetan *Merçi patron!*, fenomeno soziologiko bat izan da eta hein batean haren uberran piztu zen *Nuit Debout* mugimendua 2016ko martxoan, sindikatuak Parisen antolatuta zeukaten manifestazio baten amaieran milaka jende erabakirik plazak okupatzea, aurretik Occupy Wall Street eta M-15ekoek egin bezala. Euskal Herrian Gipuzkoa Zutik mugimendua egin zion oihartzun, bere txikian.

Merçi patron!-ekin Cesar saria –*Goya*, Espainian balitz– irabazita, domina jasotzera agertutakoan hitzaldi gogoangarria egin zuen Ruffinek kameren aurrean: “Nire filmak aipatzen du fabrika bat Poloniara eraman zutena, atzean utziz kristoren miseria eta ezinegona. Eta gu hemen solasean ari garen bitartean, Amiens hiriko Whirlpool fabrika, jantzien lehorgailuak ekoizten dituen, gauza bera ari da nozitzen, Poloniara baitaramate. Duela hamabost urte, ordurako Amiens nintzen, arropen garbigailuak eraman zituzten Eslovakiara, Continental eraman zuten Errumaniara, Goodyear Poloniara... Badira hogeita hamar urte hau gertatzen dela altzari-gintzan, oihalgintzan, kimikan, metalurgian eta denetan. Zergatik beti berdin hogeita hamar urte pasata ere? Obreiroak harrapatzen dituelako, eta horiek ez zaizkiolako inori inporta”.

Eta espektakuluko profesionalei begira jarraitu zuen: “Aktoreak balira, aktore errumaniarrek konkurrentzian jarrita, arazoa berehala azalduko litzateke. Balira kazetariak... Kazetarien zergak ukitzen direnean, eztabaidak egoten dira, iritziz artikuluak egunkarietan. Baina imajina dezagun diputatuei gertatzea, esaten dutela diputatuak ez direla aski konpetitiboak. Diputatu frantses bakoitza kostatzen da hileko 7.610 euro, aldiz, diputatu poloniar bat hileko 2.000. Baina Bangladesheko diputatu bat hilean 164 euro kostatzen da! Pentsa egun batean esaten dela: ‘Bihar

Legebiltzarra Varsoviara deslokalizatu behar dugu’. Berehala egongo lirateke eztabaidak parlamentuan, eta lege proposamen bat sortuko litzateke. Badira berrogei urte hori bera gertatzen zaiela obreroei eta inork ez du lege proposamenik egin”.

Ruffinek mintzaldia bukatu zuen François Hollanderi eskatuz “ipurdia mugitu dezala” eta fabrikak deslokalizatzen dituzten markak Frantzian saltzea debekatzeko.

Diputatu soldata: 1.181 euro

Cesar saria ospatzera Ruffin Whirlpool-eko langile etsituen artera joan zen. Han mamitu zuen bere eskaintza politikoa, Parisko legebiltzarrerako Pikardia Zutik –Picardie Debout– plataforma bateratua hautagai aurkeztekoa. Ordurako Ruffinek azken urteotan hainbestetan aurkitu dituen sindikalistek egin zuten ezkutuko lana, lortuz bai Jean-Luc Melenchonon Ezkerroko Frontearen eta bai Berde-Ekologisten adostasuna.

Legebiltzarrerako hauteskondeez ari gara. Frantzia eta Europa osoa lehen-dakaritzarako bozketei begira dauden bitartean, ea azkenean beteko den Marine Le Pen president bihurtzeko amesgaiztoa... bitartean beste asko ari dira ondorengo hilabeteetarako prestatzen, alegia, bata zein bestea suertatu lehen-dakari, haren politikek pasatu beharko dutela parlamentuaren galbahetik.

Zer eskaintzen du Ruffinek? Hasteko bere burua kokatu du klase guztietako



*François Ruffin –argazkia
Courier Picard egunkaritik
hartua da– Abbevilleko karrikan
bere hautagaitza sostengatzen
duen jende multzo batekin.
Kamixetan darama Picardie
Debout mugimenduaren
ikurra, Lafleur pertsonaia
satirikoa: Pikardia ingurueta
antzerki eta inauteri giroetan
XIX. mendetik ezaguna denak,
Lafleurrek ostikoz jotzen ditu
harrapatzen dituenak. Ruffinen
kanpainaren leloa: “Ez daukagu
dirurik, baina jendea daukagu”.*

promesak entzunda desengainaturik dagoen boto emailearen lekuan: “Dudarik gabe, ‘gehieneko soldata’ bat ezarri nahiko nuke legez. Gai eta kapitalen zirkulazio librea baimentzen duten Europa mailako itunak ezabatzea. Lan prekarioa bukatzea. Gutxieneko soldata eta erretiroak 1.500 eurotara igotzea. Oporretarako seigarren astea. Enpresa txikiak laguntzea eta ez handiak. Baina sinetsiko al dituzue zuek nire promesak? Akaso Legebiltzarrean edukiko ote dut gehiengoa? Duda egiten duzue, eta arrazoiz”. Horregatik, Ruffinek hiru konpromiso zehatz hartu ditu.

Bat: bere diputatu kargua utziko du botoemaileen %25ek hala eskatzen badiote. Bi: diputatu bakoitzak urtero 130.000 euroko poltsa bat daukanez nahi duenari laguntzeko (bost urtetan 650.000!), juradu bat antolatuko du

zozketaz haien esku utziz diru hori banatzea. Hiru: gaur diputatu batek hilaletan 7.100 euro gordin kobratzen duenez (beste indemnizazio eta estrak aparte), gutxieneko soldata 1.500 eurotara igo artean Ruffinek kobratuko du hilean 1.181 euro, *Fakir* aldizkarian kobratzen duena.

“Premiazkoa da –dio Ruffinek elkarriketetan– ezkerrek lur hartu dezan jende apalaren artean, baserrietan bezala hirietako auzuneetan. Erakarri behar ditugu ezkerretik abstentziora jo dutenak, sozialistez etsituak, Front Nationalen bozak berreskuratu, erakutsi isiltzea edo FN bozkatzea ez den beste modu bat badela haserre eta Europa honen arbuioa erakusteko”.

Picardie Debout hautagaitzaren inguruan ilusionatutako jende multzo baten babesean, Ruffinek atez ate bisitatzen

ditu Amiens, Abbeville eta inguruko auzoetako familiak. “Gure filmean erakutsi den moduan, arazoak daukazunean lanean, edo langabezian zaude-nean oso erraza da arrazismora jotzea, eskueran daukazunei erasotzea, izan etorkin edo laguntza sozialen hartzaile. Berriro ulertarazi behar dugu zein den benetako arduraduna: ugazaba. Lehen ezaguna zen, nagusiak jauregia zeukan denen bistan, kapera propioa hilerrian. Gaur elkarrengandik urruti bizi dira langilea eta izorratzen duen patroia. Ikusi Whirlpool, Amiensetik laster deslokali-zatuko duten fabrika: langileek ez daki-te nagusia nor den ere”.

Ruffinek azaldu die Whirpooleko obreroei: “Jeff Fettigek irabazten du gutako bakoitzak 500 urtean nekez irabaziko lukeena. Eta dio geu, langileok garela garestiegiak!”. ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

